# Descripción de los itinerarios

## 1. Itinerario: Marcha "Ocho Montes"

Partiendo de Ugao-Miraballes, iremos a Arrankudiaga por la carretera. A la entrada de este municipio, en el alto de Epalza, tomaremos el camino hacia la derecha; pasaremos por la serrería y nos encontraremos con el barrio de Tellerí. Llegaremos a una bifurcación y tomaremos el camino de la izquierda que pasa cerca de una granja. Seguiremos por el camino principal, fácilmente reconocible, aunque veamos bifurcaciones, hasta llegar a una bifurcación con dos caminos principales. El de la izquierda con una gran cuesta pero nosotros seguiremos el camino de la derecha. Más tarde giraremos 90° y nos encontraremos con tres caminos pero seguiremos el del medio que tiene una cuesta pronunciada. Llegaremos a un claro con dos caminos, seguiremos el de la izquierda. Al llegar a un collado iremos a la izquierda hasta que veamos la cruz metálica y el buzón del Goikogane.

Siguiendo el cordal hacia el norte, a poco más de un kilómetro llegaremos a la segunda cumbre, Kamaraka, pasando por la cota secundaria del Mugarriluze.

Desde Kamaraka para llegar a Gazteluzar seguiremos hacia delante hasta que veremos a nuestra derecha una pequeña loma. La subiremos y nos encontraremos con el buzón del Gazteluzar.

Seguiremos el camino hasta la campa de Krutziaga donde nos encontraremos con una gran pendiente que tendremos que ascender para llegar a Ganekogorta.

Después de llegar a Ganekogorta descenderemos por el sendero hasta llegar al collado, aquí nos desviaremos del sendero hacia la derecha para llegar al Biderdi.

Bajaremos siguiendo el camino hasta la campa de Munagane, donde se juntan los caminos que vienen del Ganekogorta y de Zollo. Continuaremos dirección Pagasarri por el camino de enfrente, sin desviarnos del camino principal, hasta que veamos las antiguas neveras y la fuente de Tarín a la derecha. Podremos ver la antena que se encuentra en el Ganeta y subiendo un pequeño repecho llegaremos a la cima.

Bajaremos a la campa de Pagasarri donde se encuentran el refugio y un área recreativa bien equipada. Desde aquí llegaremos a la cumbre de Pagasarri. Seguiremos hasta la campa de Pastorekorta donde encontraremos otra área recreativa y la fuente de Txus. Subiendo un repecho llegaremos a la última cima, el Pastorekorta.

Descenderemos por un camino marcado hasta que encontremos una desviación a la derecha para llegar a Markio, aquí se encuentra la ermita de San Juan Bautista. De aquí seguiremos por la carretera hacia abajo hasta llegar a Beretxa y por último llegaremos a Ugao-Miraballes, final del recorrido.

## 2. Itinerario alternativo

Desde Ugao-Miraballes hasta la campa de Kurtziaga seguiremos las indicaciones del primer itinerario. Una vez que lleguemos a esta campa tomaremos el camino de la derecha, por el que bordearemos el Ganekogorta pasando por la fuente del Espino. Siguiendo esta senda llegaremos a un cruce donde está indicado el camino que debemos de tomar para descender a Zollo. Siguiendo este camino nos encontraremos con una bifurcación a la derecha pero seguiremos de frente, pasaremos por un paso de ganado y por debajo de unos cables de alta tensión hasta llegar a un cruce. En este cruce tomaremos el camino del medio y seguiremos descendiendo. A pesar de que nos aparezcan nuevas bifurcaciones seguiremos por la pista principal, fácilmente reconocible. Al final de esta pista encontraremos otro camino en el que giraremos a la izquierda. Seguiremos hasta llegar a Zollo y desde aquí por la carretera llegaremos al final del recorrido, Ugao-Miraballes.

## 3. Itinerario alternativo

Desde Ugao-Miraballes iremos hasta Zollo, aquí por la derecha de la plaza seguiremos un camino estrecho que nos lleva a una pista de hormigón que se interna en un pinal a la altura del cementerio. En la segunda bifurcación que encontraremos tomaremos la pista de la derecha. Por este camino de fuerte pendiente seguiremos sin desviarnos de la pista principal hasta llegar a un cruce de varios caminos, aquí tomaremos el camino del medio. Nos encontraremos con una nueva bifurcación pero nosotros seguiremos por la pista de la derecha. Pasaremos por un paso de ganado y por debajo de unos cables de alta tensión. Seguiremos la pista y al llegar a una bifurcación, seguiremos de frente llegando a otra, donde también seguiremos de frente. Siguiendo este camino llegaremos a la campa de Munagane donde tomaremos la pista de enfrente, dirección Pagasarri. A partir de aquí seguiremos las indicaciones del primer itinerario hasta llegar a Ugao-Miraballes.

# Ibilbideen deskribapena

## 1. ibilbidea: "Zortzi mendiak" ibilbidea

Ugao-Miraballestik irten eta Arrankudiagarantz joango gara errepidetik. Udalerrian sartzean, Epalza gaina izenekoan, eskuinean dugun bidea hartuko dugu, zerrategia igaroz Telleri auzora iristeko. Bidegurutze batera iritsiko gara eta, bertan, ezkerreko bidea hartuko dugu, abeltegiaren albotik igarotzen dena, hain zuzen ere. Bidegurutzeekin topo egin arren, bide nagusian jarraituko dugu (oso erraz ikusiko dugu) bide nagusi bi elkartzen diren bidegurutzera heldu arte. Ezkerrekoan pago ilara bat eta aldapa handia ikusiko ditugu, baina guk eskuinekoa hartuko dugu. Ondoren 90° biratu eta hiru bide ikusiko ditugu; erdikoa hartuko dugu, aldapa handia duena. Argigune batera iritsiko gara: bertan bi bide daude eta guk ezkerrekoa hartu beharko dugu. Mendixka batera igotzean ezkerrerantz egingo dugu, metalezko gurutzea eta Goikoganeko postontzia ikusi arte.

Iparralderantz egingo dugu orain eta, kilometro bat baino pixka bat gehiago ibilitakoan, bigarren gailurra egingo dugu, Kamaraka, Mugarriluzeko bigarren mailako kota igarota.

Kamarakatik Gazteluzarrera iristeko, aurrerantz egingo dugu, eskuinean muino txiki bat ikusi arte. Muinoa igo eta bertan egongo da Gazteluzarko postontzia.

Bideari jarraituz Krutziaga zelaira iritsiko gara eta, bertan, aldapa gogorra igo beharko dugu Ganekogortara heltzeko.

Ganekogortatik bide-zidorrean behera egingo dugu, mendixkara heldu arte. Bertan, bide-zidorra utzi eta eskuinerantz egingo dugu Biderdira heltzeko.

Orain Munagane zelairako bidea egingo dugu, bertan bat egiten baitute Ganekogortatik eta Zollotik datozen bideek. Pagasarrirako bidea hartuko dugu ondoren, aurrerantz, bide nagusia utzi gabe. Orduan antzinako elurtegiak eta Tarin iturria ikusiko ditugu eskuinean. Ganetan dagoen antena ere ikusiko dugu eta, aldapa txiki bat igota, gailurrera helduko gara.

Pagasarriko zelaira jaitsiko gara eta, bertan, aterpetxea eta guztiz ekipatutako olgeta-gunea ikusiko ditugu. Bertatik Pagasarriko gailurrera helduko gara. Pastorekorta zelaira arte jarraituko dugu eta, bertan, olgetarako beste gune bat eta Txusen iturria ikusiko ditugu. Beste aldapa bat igo eta Pastorekorta gailurra egingo dugu.

Markatutako bideari jarraitu ondoren, eskuineko bidea hartu eta Markiora iritsiko gara, San Joan Bataiatzailearen ermita duen auzoa, hain zuzen ere. Orain Beretxara jaitsiko gara eta hortik Ugao-Miraballes ikusiko dugu, ibilbide honen guztiaren amaiera, alegia.

## 2. ibilbide alternatiboa

Ugao-Miraballestik hasi eta Kurtziagara arte, lehenengo ibilbidearen jarraibideei jarraituko diegu. Aipatutako zelai horretara iritsitakoan eskuineko bidea artuko dugu, Ganekogorta ertzetik, Elorri Zuriaren Iturria igaroz. Bide horretan jarraituta Zollora jaisteko hartu behar dugun bidea azaltzen duen bidegurutzera iritsiko gara. Bide hori hartuko dugu eta eskuinean bidegurutze bat ikusi arren, guk aurrera jarraituko dugu. Abereen pasabidean aurrera jarraituz, goi-tentsioko kableen azpitik ere igaroko gara bidegurutze batekin topo egin arte. Bidegurutzean erdiko bidea hartu eta jaisten jarraituko dugu. Bidegurutzeak ikusiko ditugun arren, bide nagusian jarraituko dugu (oso erraz ikusiko dugu). Bide horren amaieran beste bide bat ikusiko dugu eta, orduan, ezkerrerantz egingo dugu. Zollora iritsi arte jarraituko dugu eta, bertatik, errepideari jarraituz, ibilbidearen amaierara iritsiko gara, hau da, Ugao-Miraballesera.

## 3. ibilbide alternatiboa

Ugao-Miraballestik Zollora joango gara; bertan, plazaren eskuineko aldetik bide estu bat hartu eta hormigoizko bide batera iritsiko gara; bide hori pinudi batean sartuko da hilerriaren parean. Ikusiko dugun bigarren bide-gurutzean eskuineko bidea hartuko dugu. Aldapa handiko bide horretan jarraituko dugu, betiere bide nagusian, hainbat bideko bidegurutzera heldu arte; orduan erdiko bidea hartuko dugu. Beste bidegurutze bat ere ikusiko dugu orduan baina, oraingoan, eskuineko bidea hartuko dugu. Abereen pasabidean aurrera jarraituz, goi-tentsioko kableen azpitik igaroko gara. Bideari jarraitu eta bidegurutze batekin topo egitean, aurrera jarraituko dugu; beste bidegurutzen bat ikusiko dugu orduan eta, oraingoan ere, aurrera jarraituko dugu. Bide horri jarraituz Munagane zelaira iritsiko gara eta, bertan, aurreko bidea hartuko dugu, Pagasarrirantz. Hemendik aurrera lehenengo ibilbidearen jarraibideei jarraituko diegu, Ugao-Miraballesera iritsi arte.

## Landaretza

Antzina, mendi hauetako landaretza nagusia hariztiak, pagadiak, eta haltzadiak ziren, ibaien inguruan. Hala eta guztiz ere, jatorrizko landaretza hori nabarmen ordeztu dute bizkor hazten diren zuhaitzek (koniferoak, etab.); horrenbestez, jatorrizko landaretza horiek heltzeko zail dauden lekuetan baztertuta geratu dira, edo oso landare gutxi daude, isolatuta.

## Vegetación

Antiguamente la vegetación de estos montes estaba constituida por robledales, hayedos, encinas, alisedas en torno a los cursos fluviales... Esta vegetación primitiva ha sido sustituida en gran medida por plantaciones arbóreas introducidas de crecimiento rápido (coníferas, etc.), quedando las especies autóctonas relegadas a lugares de difícil acceso o reducidas a ejemplares aislados.

## Pagasarriko Karst eta Fosilak

Pagasarriko goiko aldean karbonatatutako material ugari daude. Gainazal horretan karbonatazioak eta disoluzioak ildo eta arrailak egin dituzte lapiaza sortuz. Material horietan, Behe Kretazeo garaiko itsasoetako izaki bizidunei (koralak, maskorrak…) dagozkien hainbat fosil ikusi ahal izango ditugu. Pagasarriko postontziaren gunean hainbat daude eta, gainera, erraz bereizten dira, kolore ilunagoko inkrustazioak baitira.



## Karst y Fósiles de Pagasarri

En la zona superior de Pagasarri afloran materiales carbonatados. La carbonatación y disolución han ido desarrollando surcos y grietas formando un lapiaz. En estos materiales podremos observar numerosos fósiles que corresponden a antiguas formas de vida de ambiente marino (corales, rudistas...) y que datan del Cretácico inferior. En la zona del buzón del Pagasarri son muy numerosos y se distinguen fácilmente por ser incrustaciones de color más oscuro.



## Ganekogorta, dei-adar mendia

Bizkaiko bost dei-adar mendietako bat izan zen; hona hemen gainerakoak: Gorbeia (1481 m.), Sollube (686 m.), Oiz (1029 m.) eta Kolitza (879 m.). Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusietarako deia egiten zen mendi horietatik, gailurrean sua piztuz edo ehizarako adarrak joz.

## Ganekogorta, monte bocinero

Fue uno de los cinco montes bocineros de Bizkaia junto con Gorbeia (1.481 m.), Sollube (686 m.), Oiz (1.029 m.) y Kolitza (879 m ). Servía para convocar a las juntas generales del Señorío de Bizkaia encendiendo una hoguera en la cumbre o haciendo sonar cuernos de caza.



**Biderdiko gutunontzia.** "Ugao Mendi Taldeak" jarritako gutunontzia hau Hiru Hodiko Iturriaren kopia bat da.

**Buzón de Biderdi.** Es una copia de la Fuente de los tres caños que fue instalado por el grupo de montaña "Ugao Mendi Taldea".

## Elurtegiak eta Tarin Iturria (Pagasarri)

Aterpetxera iritsi aurretik, eskuinerantz 200 metro inguruan eginez, elurtegiak eta Tarin iturria ikusiko ditugu. Iturria 1914an inauguratu zuten mendizale batzuek. Iturriaren izenari dagokionez, batzordeak harpidedunei gastuak ordaintzeko tarin (erreal) bakarra kobratu nahi izan zielako ipini ziotela esan dezakegu.

Elurtegiak XVII. mendekoak dira; izan ere orduan hasi zen Bizkaian elurra saltzen. Elurra mendian bildu eta biltegiratzen zen neguan. Elurrak hainbat erabilera zituen, esaterako, elikaduran. Halaber, sendagai gisa ere erabiltzen zen. 2003ko apirilean zaharberritu egin ziren.

## Neveras y Fuente de Tarín (Pagasarri)

Antes de llegar al refugio, a unos 200 metros a la derecha, se encuentran las neveras y la fuente de Tarín. La fuente fue inaugurada en 1.914 por un grupo de montañeros y debe su nombre a la voluntad de la comisión de cobrar sólo un Tarín (un real) para sufragar los gastos.

Las neveras datan del siglo XVII, cuando en Bizkaia se comenzó a comercializar la nieve. Esta se recogía y almacenaba en el monte durante el invierno. La nieve se utilizaba en alimentación, en medicina... Fueron restauradas en Abril de 2003.

## Aterpetxea eta olgeta-gunea Pagasarrin

## Refugio y zona recreatiba en Pagasarri

Lehenengo aterpetxea 1914. urtean eraiki zuen Bilboko udalak, Kirol Taldeak hala eskatuta; horrela ba, 1915eko urriaren 3an ireki zen. 1919an estalpe hori bilrmoldatu eta "aterpetxe-ostalaritza" bihurtu zen, taberna eta jatetxe zerbitzua ere eskainiz.

En 1914 el Ayuntamiento de Bilbao edificó el primer refugio a petición del Club Deportivo y fue inaugurado el 3 de octubre de 1915. Este cobertizo se remodeló en 1919 convirtiéndose en "refugio-hostelería", con servicio de bar y restaurante.

## San Joan Bataiatzailearen ermita (Markio)



Markio auzoko erdialdean dago, Tollaretxe, Ormagala eta Ibarra baserrien alboan. San Joan Bataiatzaileari eskainitako kale bakarreko neogotiko hurbileko erretaula dago bertan, antza denez, XVIII. mendekoa.

## Ermita de San Juan Bautista (Markio)

Emplazada en el centro de la Barriada de Markio, junto con los caseríos Tollaretxe, Ormagala e Ibarra. Alberga un retablo (al parecer del S. XVII) neogótico reciente de una calle para el santo titular, San Juan Bautista.

## Abeltzaintza erabilera

Mendiguneko toponimoetan **Ganekogorta** eta **Pastorekorta** bezalako izenak ikusten ditugu eta horiek guneko abeltzaintza erabilera azaltzen digute. Izan ere, **korta** edo **gorta** izena ematen zitzaien ganadua elikatzeko erabiltzen ziren auzo-larreetako guneei. Lur-zatiak banatzeko modu berezia zen hori: biribilak ziren eta erdian mugarri bat izan ohi zuten.



## Uso ganadero

En el macizo existen topónimos como **Ganekogorta** y **Pastorekorta** que hacen referencia al uso ganadero de la zona. **Korta** o **gorta** significa "sel"; así se llamaban las zonas de pastos comunales. Era una forma de parcelación del terreno especial pues poseían forma circular y en su centro se colocaba un mugarri o mojón señalizador.




Javier García

# "ZORTZI MENDIAK" ibilbidea / Marcha "OCHO MONTES"




ugao

HISTORIA EZAGUTZEKO ZENTROA
CENTRO DE INTERPRETACIÓN HISTÓRICA

## "ZORTZI MENDIAK" ibilbidea
## Marcha "OCHO MONTES"

### Sarrera

Ugao Mendi Taldeak urtero antolatzen du "Zortzi Mendiak" mendi ibilbidea. Mendi ibilbide hau Ganekogorta mendigunetik igarotzen da, Ugao-Miraballesen hasi eta tontor adierazgarrienetariko batzuk zeharkatuz: Goikogane (704 m), Kamaraka (799 m), Gasteluzar (720 m), Ganekogorta (999 m), Biderdi (877 m), Ganeta (689 m), Pagasarri (672 m) eta Pastorekorta (592 m).

### Introducción

El club de montaña "Ugao Mendi Taldea" organiza anualmente la marcha de montaña "Ocho Montes". La marcha discurre por el macizo de Ganekogorta, parte de Ugao-Miraballes y atraviesa algunas de las cimas más representativas: Goikogane (704 m), Kamaraka (799 m), Gasteluzar (720 m), Ganekogorta (999 m), Biderdi (877 m), Ganeta (689 m), Pagasarri (672 m) y Pastorekorta (592 m).

**1. Itinerario: Marcha "Ocho Montes"**
**1. ibilbidea: "Zortzi mendiak" ibilbidea**



**Iraupena: 6 ordu 30'**
**Duración: 6 horas 30'**

**2. Itinerario alternativo**
**2. ibilbide alternatiboa**

**Iraupena: 4 ordu 30'**
**Duración: 4 horas 30'**

**3. Itinerario alternativo**
**3. ibilbide alternatiboa**

**Iraupena: 4 ordu 30'**
**Duración: 4 horas 30'**

AYUNTAMIENTO DE LA N. VILLA DE
**UGAO-MIRABALLES**
HIRI PRESTUAREN UDALA
Bizkaia

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Depósito Legal: BI-712-05